

Jakinarazten dizut Alkateak, 2023ko martxoaren 15ean honako Dekretu hau eman duela:

"2023ko otsailaren 17an onartu ziren Bergarako Erramu Zapatuko ferian talo txosna jartzeko gune baten adjudikazioa arautuko zuten oinarriak.

Aurkeztutako eskatzaileak eta aurkeztea falta zaien dokumentazioa honakoa da:

Enpresa/Pertsona	Falta diren agiriak
Ekotalo	Ogasuneko agiria eta jarduera ekonomikoaren agiria
Lezamakoetxeko taloak	Eskaera dokumentua eta Osasun erregistro-zenbakia edo osasun baimena falta
Mieltxo taloak	Osasun erregistro-zenbakia edo osasun baimena
Ataungo Talogileen Elkartea	Gizarte Segurantza eta Ogasunaren agiriak

Ikusita eskatzaile guztiei falta zaiela dokumenturen bat aurkeztea, eta kontuan izanda oso denbora gutxi geratzen dela feria egunerako eta espazioaren adjudikazioa lehen bai lehen egitea komeni dela, 2023ko martxoaren 9an emandako Dekretu baten bitartez erabaki zen: *2023ko martxoaren 10ean, 12:00etan, goiko koadroan jasotako talogile guztien artean egitea zozketa, adierazita adjudikazioa behin betiko bihurtzeko 2023ko martxoaren 15a baino lehen falta zaion dokumentazioa aurkeztu beharko duela zozketan adjudikazio-hartzaile suertatu denak.*

Aurkeztu ezean itxaron zerrendan lehenengo geratu den talogileari emango zaio aukera bera eta horrela hurrenez hurren adjudikazioa egin arte.

Zozketa martxoaren 10ean egin zen eta ateratako hurrenkera honakoa izan zen:

- Ekotalo
- Mieltxo taloak
- Lezamakoetxeko taloak
- Ataungo talogileen elkartea

Baina dekretua ez zen egin eta zozketaren berri ere ez zen eman. Beraz, zozketan behin-behineko adjudikazio-hartzaile suertatu zenari ezinezkoa egin zaio dokumentazioa epe barruan aurkeztea ez zuelako inolako berririk. Beraz,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Ekotalo-ri martxoaren 17ra arteko epea ematea falta zaion dokumentazioa aurkezteko, ohartarazita epe horretan aurkeztu ez balu, ez zaiola adjudikazioa behin betirako egingo.

BIGARRENA: Beste 3 eskatzaileekin itxaron zerrenda osatzea honako hurrenkera honekin:

- Mieltxo taloak
- Lezamakoetxeko taloak
- Ataungo talogileen elkartea

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea interesatu guztiei ebazpen honen jakinarazpena argitaratuta udaleko web orrian, feriari dagokion atalean.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2023ko martxoaren 15a

